# Euskadi Osorako Erabakiak
# Disposiciones Generales del País Vasco

## EKONOMIA ETA EGITAMUGINTZA-SAILA

851

**Apirilaren 7ko 105/1987 DEKRETUA. Ekonomia eta Egitamugintza-Saileko ihardutze eta antolakuntza-egitura ezarriz.**

Euskadiko Elkarte Autonomiaduneko Herri-Administrazioaren egungo eratze-moduak, Martxoaren 11ko 27/1987 Dekretuak erabakia eta Eusko Jaurlaritzako Sailen betekizunak zehazten dituenak, beharrezko egiten du Ekonomia eta Egitamugintza-Sailaren antolakuntza eta ihardute-egitura, Sail horrek bere dituen agintepideak mugatzeko, kudeaketa erazkotzeko eta gizarteak dituen ekonomia-arazoei erantzuna emateko, horrela bere eginkizunak hobeto bete ditzan.

Hori horrela, Ekonomia eta Egitamugintza-Sailburuaren saloz, Lehendakariak baitetsi eta Jaurlaritza-Batzarrak 1987ko Apirilaren 7an egindako bilkuran aztertu eta ontzat eman ondoren, honako hau

ERABAKITZEN DUT:

*1. Atala.*– Agintepidearen gaia.

1. Autonomia-Estatutuak Euskadiko Autonomia-Elkarteari aitortzen dion agindepidezko esparruan, bai gauzazkoan eta bai lur-eremuzkoan, Ekonomia eta Egitamugintza-Sailak honako hauetan izango ditu agintepideak, Dekretu honetan eta hauei dagozkien erabakietan jarritako modu eta neurrian:

a) Ekonomia-Azterlanetan

b) Egoera eta Aurrezaintzan

c) Ekonomia-Egitamugintzan

d) Estatistikan

e) Ekonomia edo egitamugintza-alorrekoak izan eta Autonomia-Elkarteko beste Ihardutze-Sail edo Erakunderen bati berariz eman gabekoetan.

2. Horiez gain, Ekonomia eta Egitamugintza-Sailari dagokio:

a) Estatuko, beste Autonomia-Elkarteetako, Kondaira-Lurraldeetako eta toki-bazkunetako Erakunde-mailako Administrazio eta Administrazio Nagusiarekin, eta baita beste herri edo jabetzapeko erakunde eta lagunekin ere elkarlan eta lankidetza-hitzarmen eta ituneak egitea eta harremanak izatea, bai bere agintepeko gaietan, eta baita Jaurlaritzak edo legezko erabakiak agindutako besteetan, indarreango araubideetan hala ezarrita dagoenean, gainerako baldintzak betetzearen eta Jaurlaritza-Batzarraren onartzearen kaltetan gabe.

b) Jaurlaritzako Sailei orokorrean emandako orotariko agintepideak.

3. Ekonomia eta Egitamugintza-Sailak baltzuango ihardutze-Sailen osakeran eskuhartuko du, hauek arau-

## DEPARTAMENTO DE ECONOMIA Y PLANIFICACION

851

**DECRETO 105/1987 de 7 de Abril, por el que se establece la Estructura Orgánica y Funcional del Departamento de Economía y Planificación.**

La actual configuración de la Administración Pública de la Comunidad Autónoma de Euskadi realizada por Decreto 27/1.987, de 11 de Marzo, con la determinación de funciones de los Departamentos del Gobierno Vasco, hace precisa la estructuración orgánica y funcional del Departamento de Economía y Planificación, a fin de delimitar las competencias que tiene encomendadas, racionalizar la gestión y dar respuesta a los problemas económicos que la sociedad tiene planteados en aras de una mejor eficacia en el ejercicio de sus funciones.

En su virtud, a propuesta del Consejero titular del Departamento de Economía y Planificación, previa aprobación de la Presidencia y deliberación y aprobación del Consejo de Gobierno en su reunión de 7 de Abril de 1987,

DISPONGO:

*Artículo 1.*– Materia objeto de competencia.

1. Dentro del marco competencial, tanto material como territorial, que el Estatuto de Autonomía atribuye a la Comunidad Autónoma de Euskadi, el Departamento de Economía y Planificación tendrá atribuidas las competencias que se enumeran a continuación en los términos que establece el presente Decreto y demás disposiciones que afecten a las mismas:

a) Estudios Económicos

b) Coyuntura y Previsión

c) Planificación Económica

d) Estadística

e) Cualquier otra de naturaleza económica o planificadora que no hubiera sido atribuida expresamente a otro Organo o Ente de la Comunidad Autónoma

2. Además, corresponderá al Departamento de Economía y Planificación:

a) La celebración de convenios y acuerdos de colaboración y de cooperación y el mantenimiento de relaciones con la Administración General e Institucional del Estado, de otras Comunidades Autónomas, de los Territorios Históricos y Corporaciones Locales, así como con otras entidades y personas públicas y privadas en las materias objeto de su competencia, o en otras que, por disposiciones legales o por el Gobierno, se le encomienden, cuando así se establezca en la normativa vigente, sin perjuicio de su aprobación por el Consejo de Gobierno y del cumplimiento de los demás requisitos exigibles.

b) Las competencias comunes atribuidas con carácter general a los Departamentos del Gobierno.

3. El Departamento de Economía y Planificación participará en la composición de órganos colegiados, en

tzen dituzten erabakietan ohartemandako modu eta neurritan.

*2. Atala.*– Ekonomia-Azterlanak eta Ihardupideak.

Ekonomia-Azterlanen eta Ihardupideen alorrean, Ekonomia eta Egitamugintza-Sailak honako agintepide hauek izango ditu:

a) Ekonomia-eremuko azterlan eta txosten orokor guztiak egitea.

b) Ekonomia-politikabide eraginkor eta egokia lortzeko asmoz, Euskadiko ekonomia-egituraren ezagupenean sakontzeko bide eman dezaketen ekonomia-eremuko gaiei buruzko azterlan, txosten eta argitalpenak egitea.

c) Jaurlaritzak ezarritako mugarteetan ekonomia-esparruan dihardUen edozein ihardutze-saili teknikazko laguntza ematea.

d) Autonomia Elkarteko Administzazio Nagusiak egin ditzan eta ekonomiarekiko eragina izan dezaten azterlanen erakideketa eta ikuskaketa, Ekonomia-Batzordeak bakoitzean jarri ditzakeen modu eta neurritan.

*3. Atala.*– Ekonomiaren aldian-aldiko egoera eta Aurrezaintza.

Ekonomiaren aldian-aldiko Egoera eta Aurrezaintzari dagokionez, honako aginpide hauek izango ditu Ekonomia eta Egitamugintza-Sailak:

a) Euskadiko Aurrekontuen Araubiderako Abenduaren 20ko 31/83 Legearen 63. Atalak agintzen duen ekonomiaren egoerari buruzko urteroko txostena egitea.

b) Euskadiko Ekonomia eta Gizarte-Arazoetarako Batzordeari buruzko Azaroaren 15eko 4/1984 Legearen 3.2 Atalak aipatzen duen Euskal Herriko Autonomia-Elkarteko ekonomiaren egoera eta Jaurlaritzaren Ekonomia-Politikari buruzko seihilabeteroko txostena egin eta Jaurlaritzari igortzea.

c) Euskal Herriko, nahiz hemen eraginik duen, ekonomiaren egoera, bilakaera eta politikaren jarraipena egitea.

d) Ekonomiaren aldian-aldiko egoerari buruzko azterketak, txostenak eta argitalpenak burutzea.

e) Estatuko eta nazioarteko ekonomiaren egoeraren jarraipena.

f) Egitamugintzarako azterketen oinarri gisa, aurrezaintzarako teknikabideak erabiltzea, bilakaera orokorra eta arlokakoa nolakoa izan daitekeen ikusteko.

*4. Atala.*– Ekonomia-Egitamugintza

Ekonomiaren plangintza alorrean honako aginpide hauek izango ditu Ekonomia eta Egitamugintzarako Sailak:

a) Lanpostuak sortzearen, hazkunde orekatuaren eta Europako Elkarteetarako egokipenaren helburuak lortzeko herri-alorraren ahaleginak bilduko dituen Erdi-Epeko Ekonomia-Egitamuaren zehazketa, garapena eta egiterapena, Martxoaren 11ko 27/1987 Dekretuaren 3.b) atalak Lehendakariordeari ematen dizkion aginpideen kalterik gabe eta, era berean, Euskal Herriko Herriogasun Nagusiaren Oinarri Arauemaileen Legearen 31.1 h. Atalak Legebiltzarrarentzat gordetzen dituenen kaltetan gabe.

la forma prevista en las disposiciones reguladoras de los mismos.

*Artículo 2.*– Estudios Económicos y Métodos.

En materia de Estudios Económicos y Métodos, el Departamento de Economía y Planificación tendrá atribuidas las siguientes competencias:

a) La realización de todos los estudios e informes de carácter general de naturaleza económica.

b) La realización de estudios, informes y publicaciones sobre temas de naturaleza económica que sirvan para profundizar en el conocimiento de la estructura económica de Euskadi, con la finalidad de posibilitar una política económica eficaz y coherente.

c) El apoyo técnico a cualquier órgano que opere en el campo económico en los términos que establezca el Gobierno.

d) La coordinación y supervisión de todos los estudios con incidencia en la actividad económica general realizados por la Administración General de la Comunidad Autónoma, en los términos que pudiera establecer la Comisión Económica en cada caso.

*Artículo 3.*– Coyuntura y Previsión Económica.

En materia de Coyuntura y Previsión Económica, el Departamento de Economía y Planificación tendrá atribuidas las siguientes competencias:

a) La elaboración del informe anual sobre la situación económica de Euskadi previsto en el artículo 63 de la Ley de 31/83 de 20 de Diciembre de Régimen Presupuestario de Euskadi.

b) La elaboración y remisión al Gobierno del informe semestral sobre la situación económica de la Comunidad Autónoma Vasca y de la política económica del Gobierno a que alude el artículo 3.2 de la Ley 4/1984, de 15 de noviembre sobre Consejo Económico y Social Vasco - Euskadiko Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Batzordea.

c) El seguimiento de la situación, evolución y política económica del País Vasco, o con incidencia en el mismo.

d) La elaboración de análisis, informes y publicaciones sobre coyuntura económica.

e) El seguimiento de la coyuntura económica estatal e internacional.

f) La utilización de técnicas de previsión para estimar la posible evolución global y sectorial de la economía vasca como soporte a los estudios de planificación.

*Artículo 4.*– Planificación Económica.

En materia de Planificación Económica, el Departamento de Economía y Planificación tendrá atribuidas las siguientes competencias:

a) Formulación, desarrollo y ejecución del Plan Económico a Medio Plazo que aglutine los esfuerzos del sector público en orden a alcanzar los objetivos de creación de empleo, crecimiento equilibrado y mejor adaptación a las Comunidades Europeas, sin perjuicio de las competencias que el artículo 3.b) del Decreto 27/1987, de 11 de marzo atribuye al Vicepresidente y de las que el artículo 31.1 h. de la Ley de Principios Ordenadores de la Hacienda General del País Vasco reserva al Parlamento.

b) Ekonomia-plangintzaren lantze eta jarraipenerako teknikazko laguntza ematea.

c) Egitamugintzari loturik sor daitezen erakunde-ataletan eskuhartzea, Jaurlaritzak erabakitako eran.

d) Era berean, Ekonomia eta Egitamugintza-Sailaren ardura izango da, hala egokituz gero, Autonomia-Elkarteak eskuhar dezan Herri-Erakundeetako ihardunaren plangintzan Jaurlaritzari teknikazko laguntza ematea eta eskuhartzea, Jaurlaritzak erabaki dezan eran.

e) Estatuko Administrazioarekin harremanak koordinatzea herrialde-plangintzaren alorrean.

f) Elkartearen egitura-politikaren egintzak bideratzea eta horien jarraipena Herrialde-Garapenerako Egitamuaren baitan.

g) Ekonomiaren Ihardunaren eragile diren gizarte eta ekonomiaren eginkarien partaidetza suzpertzea benetan elkarrartutako plangintza burutu dadin.

5. *Atala*.– Estatistika

1. Euskal Estatistika-Erakundea izeneko Erakunde Autonomiduna, Apirilaren 23ko 4/1986 Legeak sortutakoa, Ekonomia eta Egitasmugintza-Sailari atxikitzen zaio.

2. Estatistika alorrean, Apirilaren 23ko 4/1986 legearen 33.2 atalean ohartemandako aginpideak izango ditu Ekonomia eta Egitasmugintza-Sailak, Sailak berak horretarako sortuko duen Berarizko Estatistika-Atalaren bidez.

6. *Atala*.– Eginkizun eta ahalmenak

Ekonomia eta Egitamugintza-Sailak, aurreko ataletan esandako agintepide esparruan eta indarreango legeriak finkatutako mugartean, araudigintza-ahalmena eta egiterapengintza edo administrazio-ahalmena izango ditu, eginpideok erabiltzeko.

7. *Atala*.– Ekonomia eta Egitamugintza-Sailaren Antolakuntza.

1. Ekonomia eta Egitamugintza-Saila honako ihardutze-Sail hauetan egituratzen da, Sailburuaren zuzendaritza nagusipean, indarreango araubideak aitortzen dizkion eginkizunak betetzeko:

1. Sailburua

2. Ekonomia-Sailordetza

2.1. Ekonomia-azterlan eta ihardupideetarako Artezkaritza.

2.2. Egoera eta Ekonomia-aurrezaintzarako Artezkaritza.

3. Egitamugintza-Sailordetza

3.1. Egitamugintzarako Artezkaritza.

4. Zerbitzu-Artezkaritza.

2. 1 zatian esandako ihardutze-sailen menpe Ihardutze-egituraz zerbitzu-buruzagitza baino maila apalagoa ihardutze-sailak izan daitezke. Horiek lortzea eta horiei eginkizunak ematea Dekretu horren egiterapen eta gurapen-arauen bidez zehaztuko dira.

8. *Atala*.– Ekonomia eta Egitamugintza-Sailburua.

Ekonomia eta Egitamugintza-Sailburuak, Saileko buruzagitza duenez, Saileko ihardutze-Sail eta ekintza guztien zuzendaritza, koordinakuntza eta zaintza izango

b) El apoyo técnico a la elaboración y seguimiento de la Planificación Económica.

c) La participación en los órganos que, en su caso, se creen en relación con la planificación, en los términos establecidos por el Gobierno.

d) Asimismo, corresponderá al Departamento de Economía y Planificación el apoyo técnico al Gobierno y la participación, en los términos que éste decida, en la planificación de la actividad del resto de Instituciones Públicas en las que, en su caso, participe la Comunidad Autónoma.

e) Coordinación de las relaciones con la Administración Central en materia de planificación regional.

f) Canalización de las actuaciones en materia de política estructural comunitaria y su seguimiento en el marco del Programa de Desarrollo Regional.

g) Dinamizar la participación de los agentes sociales y económicos protagonistas de la vida económica, a fin de lograr una auténtica planificación concertada.

*Artículo 5*.– Estadística.

1. Queda adscrito al Departamento de Economía y Planificación el Organismo Autónomo Euskal Estatistika-Erakundea/Instituto Vasco de Estadística creado por Ley 4/1986, de 23 de abril.

2. En materia de estadística, el Departamento de Economía y Planificación ejercerá las competencias previstas en el artículo 33.2 de la Ley 4/1986, de 23 de abril, a través del Organo Estadístico Específico que a tal efecto se cree por el propio Departamento.

*Artículo 6*.– Funciones y Potestades.

Dentro de las competencias enumeradas en los artículos anteriores y de los límites establecidos por la legislación vigente, el Departamento de Economía y Planificación tendrá atribuidas tanto la potestad reglamentaria como la función ejecutiva o potestad de administración para el ejercicio de las mismas.

*Artículo 7*.– Organización del Departamento de Economía y Planificación.

1. El Departamento de Economía y Planificación bajo la superior dirección de su Titular se estructura, para el ejercicio de las funciones que le atribuye la normativa vigente en los siguientes órganos:

1. Consejero Titular del Departamento

2. Viceconsejería de Economía

2.1. Dirección de Estudios Económicos y Métodos

2.2. Dirección de Coyuntura y Previsión Económica

3. Viceconsejería de Planificación

3.1. Dirección de Planificación

4. Dirección de Servicios

2. Podrán existir órganos, cuya categoría no sea superior a jefatura de servicios, en dependencia directa de alguno de los órganos enumerados en el epígrafe 1. Su creación y atribución de funciones se establecerán a través de las disposiciones de desarrollo y ejecución del presente Decreto.

*Artículo 8*.– El Consejero de Economía y Planificación.

El Consejero de Economía y Planificación, como órgano superior del Departamento, ejercerá la dirección, coordinación y control de todos los órganos y

du eta Dekretu honetan ezarritako moduan bere agintaritzaren menpeko ditu guztiak.

Halaber, Ekainaren 30eko 7/1981ko Jaurlaritza-Legeak emandako aginpideez gain, honako hauek ere izango ditu:

a) Ekonomia eta egitamugintza-gaietan Autonomia--Elkartearen eta beste Erakundeen arteko koordinakuntza-Sailetan parte hartzen eta, hala badagokio, Autonomia-Elkartearen ordezkari izatea.

b) Apirilaren 23ko 4/1986 Legeak ematen dizkion aginpide guztiak, Dekretu honen 5. ataleko 1.zatiaren arabera Euskal Estatistika-Erakundea Sail honi atxiki izanagatik.

c) Sailari aitortutako eta bertako beste ihardutze-sailean bati nahiz bere menpeko beste Erakunderen bati eman gabeko aginpideak.

d) Legebideak berariz berari eman eta Jaurlaritzako Sailburuari orokorki emanda egoteagatik, horietako bakoitzarenak ere izan daitezenak.

*9. Atala.*– Ekonomia-Sailordetza

1. Ekonomia-Sailburuordeari dagozkio, zuzenean Ekonomia eta Egitamugintza-Sailburuaren esanetara, honako eskurantza hauek:

a) Beste agintari, Erakunde eta Batzekiko harremanetan Sailburuaren ordez Sailaren ordezkari izatea.

b) Sailordetzaren eta honen menpeko administrazio--atalen arauak eta iharduteko egitamuak Sailburuari aurkeztea.

c) Sailburua hala baimenduta eta Ekainaren 30eko 7/1981 Jaurlaritza-Legearen 40 eta 42 Atalen arauera, bere arduren ordezkotza menpeko dituen Artezkariei ematea.

d) Huts, gaiso edo kanporaldietan eta hauetako egoeraren batek iraun dezan bitartean, Sailburuordearen ardurak, ordezkaritzakoa izan ezik, Sailburuak bere gain izango ditu, ordezkaritzaz berarizko erabakirik ez den artean.

e) Sailordetzako eta honen ardurapeko Artezkaritzetako iharduteko egitamuen eta helburuen kudeaketa zuzentzea, berauen lan-egitamuak onartu eta dituzten egoitzetako eta etxeetako ekintzen koordinaketa eta ikuskapena bere gain hartzen dituela.

f) Sailordetzako eta honen ardurapeko Artezkaritzetako ihardute-sail guztien lanak egitarautzea, bultzatzea, zuzentzea, koordinatzea eta zaintzea.

g) Sailordetzaren eta honi atxikitako administrazio--ataletako Zerbitzuen barne-antolaketarako eta ihardunerako zabaltagiri eta azalpen eta beharrezko erabakiak ematea, ihardute-sail aginpidedunak horretarako ezarritako orokortasunezko araupean beti ere.

h) Errekurtsoak ebaztea, arau ezargarrietan ohartemandakoetan.

i) Sailburuak berariz emandako ordezkotza guztiak.

j) Legezko araubideek edo, Jaurlaritzako Sailordetzei orokortasunez emanak izanik, agizko araubide direnek berariz emandakoak.

actividades del Departamento, los cuales dependerán jerárquicamente de él en la forma establecida en el presente Decreto.

Asímismo, además de las facultades que le confiere la Ley 7/1981, de 30 de junio, de Gobierno, tendrá atribuidas las siguientes competencias:

a) La participación y representación, en su caso, de la Comunidad Autónoma en los órganos de coordinación en materia económica y planificadora entre aquélla y otras Instituciones.

b) Todas las competencias que le atribuye la Ley 4/1986 de 23 de abril, en virtud de la adscripción del Euskal Estatistika-Erakundea/Instituto Vasco de Estadística a este Departamento según artículo 5º, epígrafe 1 del presente Decreto.

c) Las que, estando atribuidas al Departamento, no hayan sido conferidas a otro órgano del mismo o a otro Ente dependiente de aquél.

d) Las que atribuye expresamente el ordenamiento jurídico, o tengan el carácter de comunes por venir atribuida con carácter general a los Consejeros del Gobierno.

*Artículo 9.*– Viceconsejería de Economía.

1. Corresponde al Viceconsejero de Economía, bajo la dependencia directa y jerárquica del Consejero Titular del Departamento de Economía y Planificación el ejercicio de las siguientes atribuciones:

a) Ostentar la representación del Departamento por delegación del Consejero Titular en las relaciones con las demás autoridades, Entidades y Corporaciones Oficiales.

b) Proponer al Consejero Titular la normativa y planes de actuación de la Viceconsejería, así como de las unidades administrativas dependientes de la misma.

c) Delegar sus competencias en los Directores que de él dependan, previa autorización del Consejero, y conforme a lo dispuesto en los artículos 40 y 42 de la Ley 7/1981, de 30 de junio, de Gobierno.

d) En los casos de vacante, enfermedad o ausencia, sus competencias, salvo en la de delegación, serán ejercitadas mientras dure tal situación y en defecto de una disposición específica sobre suplencia, por el Consejero Titular del Departamento.

e) Dirigir la gestión de los planes de actuación y objetivos de la Viceconsejería y Direcciones adscritas a la misma, aprobando sus proyectos de trabajo y asumiendo la coordinación e inspección de las actuaciones en sus centros y dependencias.

f) La programación, impulsión, dirección, coordinación y control de todos los órganos de la Viceconsejería y de las Direcciones que dependan de la misma.

g) Dictar circulares e instrucciones y disposiciones necesarias en orden a la organización interna y el funcionamiento de los Servicios de la Viceconsejería, así como de las unidades administrativas adscritas a la misma, dentro de las normas de carácter general que se establezcan al respecto por los órganos competentes.

h) La resolución de recursos, en los supuestos previstos en la normativa aplicable.

i) Las que expresamente le delegue el Consejero Titular del Departamento.

j) Las que le atribuya expresamente el ordenamiento jurídico, o tengan el carácter de comunes por venir atribuidas con carácter general a las Viceconsejerías del Gobierno.

k) Ekonomia-azterlan eta ihardupide-arloan eta ekonomia-egoera eta aurrezaintzaren esparruan, Dekretu honetako 2. eta 3. ataletan ohartemandako aginpideak izango ditu berariz.

2. Honako Artezkaritzok ditu menpean Ekonomia-Sailordetzak:

– Ekonomia-azterlan eta Ihardupide-Artezkaritza

– Ekonomia-egoera eta Aurrezaintza-Artezkaritza

*10. Atala.*– Ekonomia-azterlanen eta Ihardupide-Artezkaritza

Ekonomiako Sailburuordeak emango dizkion eskurantzez gain, Ekonomia-azterlanen eta Ihardupide-Artezkaritzari dagozkio:

a) Beste agintari, Erakunde eta Batza Ofizialekin diren harremanetan bere Sailburuaren edo Sailburuordearen ordez Sailaren ordezkari izatea.

b) Ihardutze-sail guztien eta Artezkaritzako eginkizunak egitarautzea, bultzatzea, zuzentzea eta zaintzea.

c) Errekurtsoak ebaztea, arau ezargarrietan ohartemandakoan.

d) Huts, gaiso edo kanporaldietan eta hauetako egoeraren batek iraun dezan bitartean, Artezkaritzaren ardurak, ordezkaritzakoa izan ezik Ekonomiako Sailburuordeak izango ditu bere gain, ordezkaritzaz berarizko erabakirik ez den artean.

e) Legezko araubideak berariz emandakoak edo Jaurlaritzako Artezkaritzei orokortasunez emanak izanik, agizko direnak.

f) Azterlan eta Ihardupide arloetan, Dekretu honetako 2. atalean ohartemandako agintepideak burutzeko beharrezkoak diren ekintzak egingo ditu.

*11. Atala.*– Ekonomia-egoera eta Aurrezaintza-Artezkaritza.

Ekonomiako Sailburuordeak emango dizkion eskurantzez gain, Ekonomia-egoera eta Aurrezaintza Artezkaritzari dagozkio:

a) Beste agintari, Erakunde eta Batza Ofizialekin diren harremanetan bere Sailburuaren edo Sailburuordearen ordez Sailaren ordezkari izatea.

b) Ihardute-sail guztien eta Artezkaritzako eginkizunak egitarautzea, bultzatzea, zuzentzea eta zaintzea.

c) Errekurtsoak ebaztea, arau ezargarrietan ohartemandakoetan.

d) Huts, gaiso edo kanporaldietan eta hauetako egoeraren batek iraun dezan bitartean, Artezkaritzaren ardurak, ordezkaritzakoa izan ezik, Ekonomiako Sailburuordeak izango ditu bere gain, ordezkaritzaz berarizko erabakirik ez den artean.

e) Legezko araubideak berariz emandakoak edo Jaurlaritzako Artezkaritzei orokortasunez emanak izanik, agizko direnak.

f) Ekonomia-egoera eta Aurrezaintza arloetan, Dekretu honetako 3. atalean ohartemandako agintepideak burutzeko beharrezkoak diren ekintzak egingo ditu.

*12. Atala.*– Egitamugintza-Sailordetza

k) En materia de estudios económicos y métodos, así como en coyuntura y previsión económica, tendrá atribuidas, específicamente, las competencias previstas en los artículos 2º y 3º del presente Decreto.

2. Dependen de la Viceconsejería de Economía, las siguientes Direcciones:

– Dirección de Estudios Económicos y Métodos

– Dirección de Coyuntura y Previsión Económica

*Artículo 10.*– Dirección de Estudios Económicos y Métodos.

Al Director de Estudios Económicos y Métodos, además de las atribuciones que le delegue el Viceconsejero de Economía le corresponde:

a) Ostentar la representación del Departamento por delegación del Consejero Titular o del Viceconsejero del que depende en las relaciones ante las demás autoridades, Entidades y Corporaciones Oficiales.

b) La programación, impulsión, dirección, programación y control de todos los órganos y actividades de la Dirección.

c) La resolución de recursos en los supuestos previstos en la normativa aplicable.

d) En los casos de vacante, enfermedad o ausencia, sus competencias, salvo en la de delegación, serán ejercitadas mientras dure tal situación y en defecto de una disposición específica sobre suplencia por el Viceconsejero de Economía.

e) Las que le atribuye expresamente el ordenamiento jurídico, o tengan el carácter de comunes por venir atribuidas con carácter general a las Direcciones del Gobierno.

f) En materia de Estudios y Métodos, desarrollará las actividades precisas para llevar a cabo las competencias previstas en el artículo 2º de este Decreto.

*Artículo 11.*– Dirección de Coyuntura y Previsión Económica.

Al Director de Coyuntura y Previsión Económica, además de las atribuciones que le delegue el Viceconsejero de Economía le corresponde:

a) Ostentar la representación del Departamento por delegación del Consejero Titular o del Viceconsejero del que depende en las relaciones ante las demás autoridades, Entidades y Corporaciones Oficiales.

b) La programación, impulsión, dirección, programación y control de todos los órganos y actividades de la Dirección.

c) La resolución de recursos en los supuestos previstos en la normativa aplicable.

d) En los casos de vacante, enfermedad o ausencia, sus competencias, salvo en la de delegación, serán ejercitadas mientras dure tal situación y en defecto de una disposición específica sobre suplencia por el Viceconsejero de Economía.

e) Las que le atribuye expresamente el ordenamiento jurídico, o tengan el carácter de comunes por venir atribuidas con carácter general a las Direcciones del Gobierno.

f) En materia de coyuntura y previsión, desarrollará las actividades precisas para llevar a cabo las competencias previstas en el artículo 3º de este Decreto.

*Artículo 12.*– Viceconsejería de Planificación.

1. Egitamugintzako Sailburuordeari dagozkio, zuzenean eta mailaz Ekonomia eta Egitamugintza-Saileko Sailburuaren menpeko izanik, ondorengo agintepideak:

a) Beste agintari, Erakunde eta Batza Ofizialekin diren harremanetan Sailburuaren ordez Sailaren ordezkari izatea.

b) Sailordetzaren eta honen menpeko administrazio-atalen arauak eta iharduteko egitamuak Sailburuari aurkeztea.

c) Sailburuak hala baimenduta eta Ekainaren 30eko 7/1981 Jaurlaritzaren Legearen 40 eta 42 Atalaren arauera, bere arduren ordezkotza menpeko dituen Artezkariei ematea.

d) Huts, gaiso edo kanpoaldietan eta hauetako egoeraren batek iraun dezan bitartean, sailburuordearen ardurak, ordezkaritzakoa izan ezik, Sailburuak bere gain izango ditu, ordezkaritzaz berarizko erabakirik ez den artean.

e) Sailordetzako eta honen ardurapeko Artezkaritzetako iharduteko egitamuen eta helburuen kudeaketa zuzentzea, berauen lan-egitamuak onartu eta dituzten egoitzetako eta etxeetako ekintzen koordinaketa eta ikuskapena bere gain hartzen dituela.

f) Sailordetzako eta honen ardurapeko Artezkaritzetako ihardute-sail guztien lanak egitatarautzea, zuzentzea, koordinatzea eta zaintzea.

g) Sailordetzaren eta honi atxikitako administrazio-ataletako Zerbitzuen barne-antolaketarako eta ihardunerako zabaltagiri eta azalpen eta beharrezko erabakiak ematea, ihardute-sail eginpidedunak horretarako ezarritako orokortasunezko araupean beti ere.

h) Errekurtsoak ebaztea, arau ezargarrietan ohartemandakoetan.

i) Sailburuak berariz emandako ordezkotza guztiak.

j) Legezko araubideak berariz emandako agintepideak edo, Jaurlaritzako Sailordetzei orokortasunez emanak izanik, agizko direnak.

k) Egitamugintza arloan, Dekretu honen 4. atalean aurrikusten diren agintepideak, zehazki, bereak izango ditu.

*13. Atala.–* Egitamugintza-Artezkaritza

Egitamugintzako Artezkariari, Egitamugintzako Sailburuordeak ordezkotzaz emandako eskurantzez gain, honako hauek dagozkio:

a) Beste agintari, Erakunde eta Batza Ofizialekin diren harremanetan bere Sailburuaren edo Sailburuordearen ordez Sailaren ordezkari izatea.

b) Artezkaritzako ihardute-sail eta ekintza guztiak programatzea, bultzatzea, zuzentzea, koordinatzea eta kontrolatzea.

c) Errekurtsoak ebaztea, erau ezargarrietan ohartemandakoetan.

d) Huts, gaiso edo kanpoaldietan, eta hauetako egoeraren batek iraun dezan bitartean, artezkariaren ardurak, ordezkaritzakoa izan ezik, Egitamugintzako Sailburuordeak bere gain izango ditu, ordezkaritzaz berarizko erabakirik ez den artean.

1. Corresponde al Viceconsejero de Planificación, bajo la dependencia directa y jerárquica del Consejero Titular del Departamento de Economía y Planificación el ejercicio de las siguientes atribuciones:

a) Ostentar la representación del Departamento por delegación del Consejero Titular en las relaciones con las demás autoridades, Entidades y Corporaciones Oficiales.

b) Proponer al Consejero Titular la normativa y planes de actuación de la Viceconsejería, así como de las unidades administrativas dependientes de la misma.

c) Delegar sus competencias en los Directores que de él dependan, previa autorización del Consejero, y conforme a lo dispuesto en los artículos 40 y 42 de la Ley 7/1981, de 30 de junio, de Gobierno.

d) En los casos de vacante, enfermedad o ausencia, sus competencias, salvo en la de delegación, serán ejercitadas mientras dure tal situación y en defecto de una disposición específica sobre suplencia, por el Consejero Titular del Departamento.

e) Dirigir la gestión de los planes de actuación y objetivos de la Viceconsejería y Direcciones adscritas a la misma, aprobando sus proyectos de trabajo y asumiendo la coordinación e inspección de las actuaciones en sus centros y dependencias.

f) La programación, impulsión, dirección, coordinación y control de todos los órganos de la Viceconsejeria y de las Direcciones que dependan de la misma.

g) Dictar circulares e instrucciones y disposiciones necesarias en orden a la organización interna y el funcionamiento de los Servicios de la Viceconsejería, así como de las unidades administrativas adscritas a la misma, dentro de las normas de carácter general que se establezcan al respecto por los órganos competentes.

h) La resolución de recursos, en los supuestos previstos en la normativa aplicable.

i) Las que expresamente le delegue el Consejero Titular del Departamento.

j) Las que le atribuya expresamente el ordenamiento jurídico, o tengan el carácter de comunes por venir atribuidas con carácter general a las Viceconsejerías del Gobierno.

k) En materia de planificación tendrá atribuidas, específicamente, las competencias previstas en el artículo 4º del presente Decreto.

*Artículo 13.–* Dirección de Planificación.

Al Director de Planificación, además de las atribuciones que le delegue el Viceconsejero de Planificación le corresponde:

a) Ostentar la representación del Departamento por delegación del Consejero Titular o del Viceconsejero del que depende en las relaciones ante las demás autoridades, Entidades y Corporaciones Oficiales.

b) La programación, impulsión, dirección, programación y control de todos los órganos y actividades de la Dirección.

c) La resolución de recursos en los supuestos previstos en la normativa aplicable.

d) En los casos de vacante, enfermedad o ausencia, sus competencias, salvo en la de delegación, serán ejercitadas mientras dure tal situación y en defecto de una disposición específica sobre suplencia por el Viceconsejero de Planificación.

e) Legezko araubideek edo, Jaurlaritzako Artezkaritzei orokortasunez emanak izanik, agizko araubide direnek berariz emandakoak.

f) Egitamugintza arloan Dekretu honen 4. Atalean aurrikusten diren ardurak betetzeko beharrezko ekintzak burutuko ditu.

*14. Atala.–* Zerbitzu-Artezkaritza

Zerbitzu-Artezkariak, zuzenean eta mailaz Sailburuaren menpeko izanik, honako egitekoak izango ditu:

a) Sailburuaren ordez Sailaren ordezkaritza izango du zenbait motatako batzordeetan.

b) Bere agintepideari dagozkien erabaki, araubidezko egitasmo, epai eta ebazpenen jarraipena, ikerketa eta azterketa; halaber, legezko gai eta azterlanak biltzea eta antolatzea.

c) Jaurtze-Batzorde eta Ekonomia-Batzordearen eritzipean jartzeko gaien txostena prestatzea.

d) Sailak emandako erabaki orokorren txostena egitea, eta baita erabakiak lantzea ere ardura hori emango balitzaio. Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu baino lehenago erabaki guztiak ikuskatzea.

e) Lege-Aholkularitza eremuko beste edozein ekintza. Sailburuak, Sailburuordeak edo Saileko Artezkariek hala eskatuz gero.

f) Saileko langileak administratzea eta kudeatzea eta langileen beharren ardura izatea.

g) Saileko diru-ezarketak, erosketak, hornidurak eta zerbitzuak kudeatzea.

h) Sailaren Lerrokategia, Agiritegi, Liburutegi eta gainontzeko agiri-biltegiak zuzentzea eta zaintzea.

i) Ekonomian eragina duten erabaki, ekintza edo hitzarmen guztien berri aginduz ematea.

j) Saileko aurrekontuak zaintzea eta, gero onartu daitezen, aurrekontuen egitasmoak egitea.

k) Lana bidezkoago izan dadin eta lan-sistema hobetzeko, barne-antolaketa moduak eta argibide-sistemak aurkeztea.

l) Indarrean dauden arauekin bat etorriaz Sailburuak berariz aitortuak eta legezko araubideak emanak edo Jaurlaritzako Artezkaritzei orokorrean aitortuak izanik agizkoak direnak.

m) Huts, gaiso edo kanporaldietan eta hauetako egoeraren batek iraun dezan bitartean, Zerbitzu-Artezkariaren ardurak Sailburuak izango ditu bere gain, ordezkaritzaz berarizko erabakirik ez den artean.

AZKEN ERABAKIAK

*Lehenengoa.–* Dekretu hau garatzeko eta egiteratzeko arauak egiteko ahalmena ematen zaio Ekonomia eta Egitamugintza-Sailburuari; Dekretuak berak eta indarrean dagoen araubidea ezartzen dizkio mugak.

e) Las que le atribuye expresamente el ordenamiento jurídico, o tengan el carácter de comunes por venir atribuidas con carácter general a las Direcciones del Gobierno.

f) En materia de planificación desarrollará las actuaciones precisas para llevar a cabo las competencias previstas en el artículo 4º de este Decreto.

*Artículo 14.–* Dirección de Servicios.

El Director de Servicios, dependiendo directa y jerárquicamente del Consejero Titular, ejercerá las siguientes funciones:

a) Ostentará la representación del Departamento por delegación del Consejero Titular en Consejos, Comisiones, Juntas, etc.

b) El seguimiento, estudio y análisis de disposiciones, proyectos normativos, sentencias y resoluciones referentes a materias de su competencia, así como la recopilación y ordenación de material y estudios jurídicos.

c) Informar y preparar los asuntos que hayan de ser sometidos al Consejo de Gobierno y Comisión Económica.

d) Informar las disposiciones generales que emanen del Departamento así como elaborarlas cuando se le encomienden, y supervisar las resoluciones de toda índole antes de su publicación en el Boletín Oficial del País Vasco.

e) Cualquier otra actuación propia de la asesoría jurídica, siempre a instancia del Consejero, Viceconsejeros o Directores del Departamento.

f) Administrar y gestionar a todo el personal adscrito al Departamento, así como atender a las necesidades del mismo.

g) Gestionar las inversiones, compras, suministros y servicios del Departamento.

h) Dirigir y mantener el Registro General, Archivo, Biblioteca y demás centros de documentación del Departamento.

i) Informar preceptivamente de cuantas disposiciones, actos o contratos tengan repercusión económica.

j) Ejercer el control presupuestario del Departamento así como elaborar los proyectos de presupuestos para su posterior aprobación.

k) Proponer métodos de organización interna y sistemas de información en orden a la racionalización y mejora de los sistemas de trabajo.

l) Las que expresamente le delegue el Consejero Titular de conformidad con la normativa vigente y aquéllas que le atribuya el ordenamiento jurídico o tengan el carácter de comunes por venir atribuidas de forma general a las Direcciónes del Gobierno.

m) En los casos de vacante, enfermedad o ausencia sus competencias serán ejercitadas mientras dure tal situación y en defecto de una disposición específica sobre suplencia por el Consejero Titular del Departamento.

DISPOSICIONES FINALES

*Primera.–* Se faculta al Consejero Titular del Departamento de Economía y Planificación para dictar las normas de desarrollo y ejecución del presente Decreto con los límites establecidos en el mismo y demás normativa vigente.

*Bigarrena.–* Dekretu hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratutako egunean hasiko da indarrean.

ERABAKI INDARGABETZAILEA

Dekretu honetan ezarritakoaren aurkako erabaki guztiak indargabe geratzen dira eta berariz Ekainaren 12ko 197/1984 Dekretua, Ekonomia eta Herriogasun-Sailaren Antolakuntza-Araudia onartzen zuena.

Gasteiz, 1987eko Apirilak 7.

Lehendakaria,
JOSE ANTONIO ARDANZA GARRO.

Ekonomia eta
Egitamugintzako Sailburua,
MILAGROS GARCIA CRESPO.

*Segunda.–* El presente Decreto entrará en vigor el mismo día de su publicación en el Boletín Oficial del País Vasco.

DISPOSICION DEROGATORIA

Quedan derogadas cuantas disposiciones se opongan a lo establecido en el presente Decreto y específicamente el Decreto 197/1984, de 12 de junio, por el que se aprobaba el Reglamento Orgánico del Departamento de Economía y Hacienda.

Dado en Vitoria-Gasteiz, a 7 de Abril de 1987.

El Lehendakari,
JOSE ANTONIO ARDANZA GARRO.

La Consejero de Economía
y Planificación,
MILAGROS GARCIA CRESPO.

**I ERASKINA / *ANEXO I***

**IHARDUTZE-EGITURA**
***ORGANIGRAMA***

